

AIURRI

1997ko ekainaren 13a. 60. Zenbakia. Doan banatzen da.

Barearen ostean dator ekaitza



ORDULARI
BITXITEGI

AGUSTIN LEITZA 3 eta 5

GOZOTEGIA
IZOZTEGIA

IRULEGI



☎
59 07 57

**KOLTXOI
DENDA
BERRIA**
Arrate plaza, 9



☎
59 07 56

Lentzeria,
ohial eta
bainujantziak

*Arrate
Berri*

☎
59 44 83



INAXI
☎
59 03 03

Jai zoriontsuak igaro

- Eztei erreportaia
- Muntaia eta sonorizazio digitala
- Argazkiei ukituak ordenagailuz

B
I
K
O
I
T
Z

FOTO - BIDEO - ARGAZKI

Nagusia, 19 ☎ 943-30 07 27
 ANDOAIN 907-44 35 47

xarmant



ileapaindegia edergintza

Solarium: 10 sesio: 5.000 pta.
 Ordua eskatzeko deitu 69 42 61-ra

Ordutegia: Asteazkenean 9:30tik 8etara.
 Larunbatean 9etatik 5etara.

kale nagusia, 49 Billabona ☎69 42 61

EUROPEAN SCHOOL

HIZKUNTZ AKADEMIA

UDAKO IKASTAROAK: UZTAILA, ABUZTUA

- ⇒ INGELESEKO ETA FRANTSESEKO KLASEAK
 - ⇒ BERTAKO IRAKASLEAK
 - ⇒ TALDE TXIKIAK
- ⇒ IKASTARO INTENTSIBOAK ETA ARRUNTAK
- ⇒ 7 URTETIK GORAKO HAURRENTZAKO KLASEAK
 - ⇒ ESKOLARI LAGUNTZA
 - ⇒ MAILA GUZTIAK
- ⇒ CAMBRIDGE ETA ALLIANCE FRANÇAISE AZTERKETAK PRESTATZEKO PRAKTIKAK
 - ⇒ ORDUTEGI AUKERA ZABALA

MATRIKULA, IREKITA

MATRIKULA DOHAIN!

PAPERTXO HAU
MOZTU ETA BERTARA
ERAMANEZ GERO


EUROPEAN
SCHOOL
HIZKUNTZ AKADEMIA

KALEBERRIA 10, BEHEA
BILLABONA

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Jone Larrañaga
"Lokatx usaina".
2. **GALDEZKA.**
Eta zu, non zinen uholde egunean?
3. **ADUNA.**
Eskola txikien eguna argazkitan.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Hemen dira San Juanak!
Dabid Estalayo andoaindarra izarretara.
Hilerriaren gorabeherak.
7. **ASTEASU.**
Ikasleak ibaia aztertzen.
- 8-9. **BILLABONA.**
Udala lege antiiteyroristaren aurka.
Irrintziko txirrindularien garaipenak.
10. **ZIZURKIL.**
Jarraipen batzordearen bigarren fasea.
11. **ENPRESA.**
Andretegi baserria, loreak zaintzen eta biltzen.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Barearen ostein dator ekaitza.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Joxe Ramon Galarragarekin solasean.
- 16-17. **KULTURA.**
Santos Urkola sokagilea.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aiartzaga **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



LOKATX USAINA



JONE LARRAÑAGA

Ondo gogoan dut. 83ko abuztua aipatu eta irudi hura etortzen zait burura: jendetza eskailera handitak beheko kalean behera haserre bizian zetorren ur emariari begira. Pasa ziren enborrak, gurpilak, zikinak... eta gero behi bat, behi handi bat, itota. Impresioa egin zidan hark.

Artean umeak ginen, baina uholdeen txikizioa konpontzen guztiak aritu ginen, katiuskak jantzita, auzolanean. Trutxuelonekoek zuten opari dendan egokitu zitzaidan laguntza ematea. Eskua lohi artean sartu eta ahal zena ateratzen eman genuen goiza, lokatza ateratzen arratsaldea, salbatutakoak garbitzen biharamona...

Auzolanean aritu nintzen lehen aldia izan zen hura. Nuen adinagatik seguraski, abentura kutsu bat ere hartu nion. Han aritu ginen lokatza artean kolkoraino sartuta, gu baino handiagoak ziren palak hartuta zikinkeria atarira ateratzen. Egunak pasatu ziren txoko zailnetan lokatza osotara atera genuen arte. (Gogoratzen dut Santakruzteko kristoak hilabeteak eman zituela oinak belztuta).

Taxineko zapatilak, Minikosteko koadernoak, Alonsoko platerak, artileak..., uholdeak erabiltzeko moduan utzi zituenak jarri zituzten salgai atarietan lan handienak bukatu zirenean. Erosi genituen zenbaitzuk; seguraski ez zen izan beharra genuelako, laguntzeagatik baizik. Zortzigarren mailararte erabili nituen hezetasunak kartoituta utzi zituen orriak zituzten koaderno haiek, bi negu egin nituen amoniarantz igurtzita garbitutako etxeko zapatila haiek.

Eta uholdeetatik salbatutako guzti hartaz usainaz oroitzen naiz batez ere. Guztiak zuen uholde usaina, usain berezia, barruraino sartzen den horietakoa. Kalle Nagusiak luzaroan izan zuen usain hura.

Harrez gero ez nuen berriz ere halakorik aditu astelehenean Bazkardo inguruko txikizioa ikustera gerturatu nintzen arte. Lanean aritu ginen argazkilaria eta biok, hura elkarrizketatu, hari argazkia atera. Igandean Kaletxiki inguruak urez estalita ikusi nitue-nean ez nuen pentsatu hondamendia halakoa izango zenik. Oraindik inpresionatuta nago. Impresionatuta urzi nau irudiak, umetan urak zeraman behi handi hark urzi ninduen moduan.



Aldizkari honetako Eusko-Iberiaritzako Kultura Solaren Laguntza jaso du



Aldizkari honetako Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamendutik Laguntza jaso du

ETA ZU, NON ZINEN UHOLDE EGUNEAN?

Aurtengo ekainaren lehen eguna ez da erraz ahaztuko. Astean zehar bero egin zuen, eta astebukaera aldera hodeiak azaldu ziren zeruan, euria iragarriz. Hala ere, inork gutxik espero zuen ondoren gertatu zena gertatzea. Berrehun litrotik gora euri egin zuen metro karratuko, eta trumoi nahiz tximista ugari ikusi eta entzun genituen ekaineko lehen eguna argitu bitartean. Horren guztiaren ondorioz, hodeietatik euri moduan lurreratu zen ura haserre bizian jaitsi zen mendietatik herrietara, eta bi ordutan kotxerik gabe gelditu zirenak ez dira gutxi izan. Beren garaje, lokal eta dendetako materiala lokaztuta eta erabiltzeko gauza ez dela ere andoaindar bat baino gehiago gelditu da, eta baita Andoaingo enpresa bat baino gehiago. Izan ere, eta Zizurkil eta Billabonako lokalak kaltetu arren, Andoain izan da gure eskualdean uholdearen eragina gehien jasan duen herria.



**AXIER IRAOLA,
IKASLEA. ADUNA.**

Etxean nengoen, irratitik jakin nuen uholdeak zeudela. Hemen, herrian, putzu batzuk eta lubizi batzuk izan ziren, baina kalterik gehiena beheko pabiloiek jasan zuten.



**JON ORMAZABAL,
IKASLEA. ZIZURKIL.**

Zizurkil goien ez ginen ezertaz enteratu, telebistaz eta irratiz izan genuen horren berri. Hemen, euria egin zuen gogotik.



**SABINO SARASOLA,
JUBILATUA. BILLABONA.**

Niri ez dit kalte handirik eragin uholdeak, baina elizaren inguruan eta Txerminen kalte ugari sortu ditu. Hemen, Billabonan, Amasako erreka atera zen, ez ibaia. Lubizi ugari izan ziren alde batean eta bestean.



**MASUX AGIRRE,
LANGILEA. ASTEASU.**

Gu oso leku onean gaude eta ez zaigu ezer gertatu. Baserri inguruetan, beharbada, lubiziak eta antzekoak izan ziren, baina hemen, kalcen, ez. Hala ere, Billabonara ezin genuen joan, Zizurkilgo plaza urez estalirik baitzegoen.



**IXIAR ERASUN,
IKASLEA. ANDOAIN.**

Azterketak zirela eta Bilboko pisuan nengoen, eta beraz, uholdeen berri komunikabideen bitartez jakin nuen. Irratiko albisteak entzunda eta egunkarietako argazkiak ikusita, uholde ikaragarriak izan direla esan dezaket.

! Larramendi Bazkuna aurtan ere "Iaio, iaio, artista bat jai!" txapelketa antolatzen saiatuko da Andoaingo Sanjoanetan eta Sanpedrotan. Hiru ataletariko batean parte hartzeko aukera dago: txistea kontatzeko, kantatzeko edo irrintzia botatzeko. Atal bakoitzean epaimahaiak txapeldun bat izendatuko du, saria jasoko duena. Dena den, parte hartzen duten guztiek oparixoren bat eskuratuko dute, ez nolana hiko gainera!



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta. 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2


☎ 590162

ANDOAIN

ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK

Jendearen parte hartze handia eta Iñaxio Oliberi hezkuntza sailburuaren bisita izan ziren egunaren berezitasunak

Iñaxio Oliberi Hezkuntza Sailburua Adunako eskolan



Jende asko joan zen festara


Adunako eskolako ikasleen ikuskizuna



Haur ausariak eskola txikitakoak!

Ormendik
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN

Joxe Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

• Hilobi berriak.

78 hilobi inguru egingo dira hilerrian

Pagamendiko hilerrian hasi dira hilobi berriak egiten. 78 hilobi inguru egingo dira eta hilobi horietakorik erosi nahi duenak eskaera egin beharko du. Lehendik hilobia eskatu dutenek berriro egin beharko dute eskaera eta eskaera asko izanez gero, zozketa bidez erabakiko da nori eman hilobia. Hilobiaren eskaerak egiteko epea ekainaren 10ean hasi da eta hilobi bakoitzaren kostua 950.000 pezetakoa da.



• Gaztetxea erori egin da.

Gaztetxe ondoan etxebizitzak eraikitzeko obretan ziharduen makina batek gaztetxe azpiko lurra mugiarazi eta zati bat bota egin zuen. Oruantxe bertan zeuden bi gaztek ateratzeko denbora izan zuten, ez da kalte handiagorik gertatu. Gaztetxeako gazteek gaztetxea erori edota bota egin ote duten zalantza azaldu dute, bitartean, gaztetxe berriaren obrak noiz hasiko diren erabakitzeke dute.

Argazkia: J.I. Unanue

• Koldo Manzidor Andoainen.

Koldo Manzidor 1994ko azaroan atxilotu zuen Goardia Zibilak. Bi urte t'erdiz Alcalá Meco eta Soto del Real espetxetan egon da. Talde armatuko kide izatea leporatu zioten eta zortzi urtetako gartzela zigorra ezarri zion Entzutegi Nazionalak. Duela egun gutxi, ordea, aske utzi zuten eta ongietorria egin zioten herritarrek Andoaingo Bekoplazan. Bertara hurbildu ziren herritar eta lagunak opari ugari egin zioten Koldori omenaldian.


• Arnaitz Carrera gaztea leherketa baten ondorioz hil da

Arnaitz polboraz betetako pote bat zulatzen ari zenean horrek eztanda egin zion eta momentuan hil zen. Ertzaintzak Arnaitzekin istripuaren unean zegoen laguna deklaratzera eramane zuten gertaeraren berri emateko. Enrique Villar, Gobernuaren ordezkariak, Andoaingo bi gazteek Y taldeen ekintzekin lotura zutela azaldu zuen, polizia oraindik ikertzen ari zenean. Arnaitzen lagunak familiarekin komunikatu baten bidez euren semei leporatzen dietena ukatzeaz gain, atxilotetarik ez dela egin adierazi dute. Horrez gain, gertaera horren inguruan eginiko deklarazioak errekifikatzea eskatu dute.

• Itasa enpresaren pabiloi bat erre da.

Paper itsasgarria egiten duen enpresa da. Oraindik sutea zerk eragin zuen zehazteke dagoen arren, Itasako pabeloi batek su hartu zuen. Suhiltzaileak eta Ertzaintza bertara gerturatu eta sua itzaltzeko lanetan hasi arren, denbora asko behar izan zuten sua kontrolatzeko. Bertako 30 langileak eta inguruko pabeloietak langileak sutearen ingurutik urruntzea lotu zuten, baina sua itzaltzeko lanetan zebilen udaleko langile batek ke askoko irentsi zuelako eritexera eraman behar izan zuten.

Argazkia: J.I. Unanue



BORDA Jatetxea

Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN

☎ 59 28 60 Faxa: 59 36 91



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA

Amia Kandida z/g - 307. Modulua - ☎ 592923

ANDOAIN

DAVID ESTALAYO ANDOAINDARRA IZARRETARA

Gaur abiatu da Errusiara astronauta izateko ikastera

Azken egunotan ezaguna egin zaigu bere izena eta aurpegia, izan ere, komunikabide ezberdinetan ikusi dugu David Estalayo andoaindarra. Horren guztiaren arrazoia David Errusiara doala da, astronauta ikastaroa egitera, hain zuzen. Europa osoko 150.000

eskakizunen artean bera eta beste 11 europarrena aukeratu dituzte hainbat frogagainditu ondoren:

Sei alemaniar, bi greziar, bi txekiar, lituaniar bat eta David.

-Nolatan jaso zenuen astronauta izateko deialdi horren berri?

"Muy interesante" aldizkarian West zigarro etxeak astronauta ikastaro bat patrozinatzen zuela irakurri eta deialdian parte hartzea erabaki nuen. Baldintzak betetzen nituelako animatu nintzen gehienbat. Beraz, eskaera orria bete eta curriculum bidali nuen.

-Zein betebeharrak eskatzen dute astronauta ikastaroan parte hartzeko?

Betebeharren artean hamazortzi eta hogeita hamabost urte bitartekoa izatea, ingelesa maila ona edukitzea eta Ingalaterrako herriren batean gutxienez sei hilabetez bizitzen egona izana eskatzen dizute. Horrez gain, fisikoki ongi egotea eskatzen dute.

-Zein frogak egin dizkizute?

Froga artean elkarrizketa pertsonalak eta telefono bidez eginiakoak izan ziren lehenak. Ondoren, Alemanian izan ginen lau egunetan, medikuntza, talde lana eta bestelako frogak fisikoak egin genituen. Egun gutxi izan ziren arren, esperientzia oso ona izan zen beste herrietako gazteekin elkar lanean ibiltzea.

-Errusian zein entrenamendu eta frogak pasa beharko dituzue?

Aurreratu digutenez frogak fisiko eta mentalk egin beharko ditugu. Superbibentzi eta orientazio martxa, hegaldi parabolikoa, kamara zentrifugatua, frogak hiperbarikoak, medikuntza eta antzekoak pasa beharko ditugu.



23 urte ditu.

-Zure egungo lanbidea utziko al zenuke astronauta izateko?

West tabako etxeak bi astetako astronauta ikastaroa eskaini arren, astronauta profesionala izateko esperantzarik ez digute eman. Astronauta izatea oso zaila da, oso elitista da. Baina noizbait aukerarik badut ez dut dudarik izango, txikitatik amestu izan dut astronauta izatea. Hala ere, orain arte lortu dudanarekin oso pozik nago.

-Hautatua izango zinarenean esperantzik ba al zenuan?


Aldizkaria pertsona askok irakurtzen dute, eta horrez gain, Europako beste bost herrialdeetako gazteei ere luzatzen zitzaizkien aukera, beraz, ez nuen uste hautatua izango nintzenik. Lehen, Alemaniako gazteei baino ez zitzaizkien aukera hori ematen, aurten berriz, gazte gehiagok hartu dugu parte.

-Nola hartu du zure familiak notizia?

Oso ondo. Familiak asko animatu eta lagundu nau. Hartu dudana erabakia ondo onartu dute eta oso pozik daude astronauta ikastarora joateko aukera dudalako. Ahal dudana ondoan egitea baino ez didate gomendatu.

-Zertan aldatu da zure bizitza?

Lehenengo mutil bera naiz. Egun gutxitan komunikabide desberdinetako kazetariak gainean izan ditudan arren, nire eguneroko bizimodu bera daramat. Prentsaurreko edota elkarrizketa batetara joan behar dudanean baimena eskatzen dut lanean. Gainerakoan, ingeleseko klaseak ematen jarraitzen dut.



Jda txikiun, asteko neguko arropak garbi ditzaitezue izar tindatuekin.

- mantak
- kortinak
- edredoaiak
- larrua
- alfonbrak

Arrate kalea, 3 ☎ 59 39 79 ANDOAIN (Arrate pilotalekuaren ondoan)



TELEFONOA.: 300732
FAXA: 300731
DR. HUIZI, 15 1. ESK.

HEMEN DIRA SAN JUANAK!

San Juan eta San Pedro jaiak bat egingo dute

Urtero San Juan egunaren bezperan hasten dira San Juan jaiak. Aurtengo berrikuntza jai egunak luzatu eta San Pedroko jaiekin bat egingo dutela da. Horrela, egun berean Kaletxikin eta Goikoplazan festa izango da.

ASTELEHENA, 23

- 20:00: SAI BE GORENA San Martin Elizan. Alberto Agirre abesbatza.
22:30: SAN JUAN SUA Goikoplazan. Txupinazoa, txalaparta eta kanpai-errepika. Suaren inguruan udal agintari eta herritarrek San Juan zortzikoa dantzatuko dute.
23:00: Agustín Leitza elkartean danborrada kalez kale eta Goikoplazan.
23:30: Dantzaldia EGAN taldearekin.

ASTEARTEA, 24

- 10:30etatik 13:30etara: BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA Goikoplazan: ezti, gazta, barazkiak, ogia, taloak, mermeladak, ...
11:00: MEZA NAGUSIA
12:00: AXERI DANTZA Goikoplazan.
17:00: HERRI KIROLAK Goikoplazan.
19:30: BERTSOLARIEN JAIALDIA La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.
20:00etatik 21:30etara: Dantzaldia AKELARRE taldearekin.
22:00: JOXE RIPIAUREN kontzertua Nafarroa plazan.
23:00: ZEZENSUZKOA.
23:30etatik 02:00etara: Dantzaldia AKELARRE taldearekin.

ASTEAZKENA, 25

- 11:00etatik 13:30etara, eta, 16:00etatik 19:00etara: HAUR PARKEA Goikoplazan: korxak, puzgarria, tren txikia...
18:00: HAUR DANBORRADA.
19:30: Txirrindulari "CRITERIUM" a Kaleberrian. Jubenilak eta lehenengo urteko kadeteak.
22:00: ARESKI Gimnasioko talde batzuen emanaldia Arrate pilotalekuan.

OSTIRALA, 27

- 19:00: Andoaingo BURUHANDI ETA ERRALDOIen konpartsa.
20:00: ZEZEN BOLADUNAK Arrate pilotalekuko atzekaldean txarangak alaiturik.
22:00: TIRRI TARRA SHOW Goikoplazan.
23:00: PILOTA JAIALDIA Arrate pilotalekuan. Pilotari amateur eta profesionalak hartuko dute parte.
23:30: Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.
02:00: EUSKARAOKEA.

LARUNBATA, 28

- 10:00: PILOTAKO FINALAK Arrate Frontoian. Jubenilak.
11:30: HAUR JOLASAK.
16:00: PLATER TIRAKETA Dorrontxolako zelain.
16:00: PILOTA PARTIDUEN finalak Arrate pilotalekuan.
18:00: TRIANA ETA MIAJON DE LOS CASUOS taldeen emanaldia Nafarroa plazan.
19:00: JUERGA S.A. Goikoplazan.
20:00: ZEZEN BOLADUNAK txarangak alaiturik.
23:00: Dantzaldia OSTADAR taldearekin, Goikoplazan.
01:00 eta 02:30etan "Iaio, iaio, artista bat jai" lehiaketaren kanporaketa Kaletxikin. Finala Goikoplazan.

IGANDEA, 29

- 10:30: ARTISAUTZA feria, Goikoplazan.
13:00: Andoaingo BANDA Musikaren Kontzertua, Goikoplazan.
18:30: TAKOLO, PIRRI TX, PORROTX pailazokak, Goikoplazan.

• Haurren euskal jaiak suspenditu egin zen.

9. haurren euskal jaialdia bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek ekainaren lehenean. Eguraldi txarra eta herriko zenbait auzo eta kaleetako uholdeak ikusita, festan parte hartu behar zuten gaztetxoei ez etortzeko gomendatu zitzaizkien. Hala ere, Iparraldeko Luixa dantza taldeak Andoainera etortzea lortu zuten. Hori dela eta, arratsalde partean bazkaria egin eta ongi pasatzeko aukera izan zuten. Euskal Jaiak beste egunen batera atzeratzeko aukerarik ba ote dagoen aztertzen ari dira antolatzaileak.



IBAIA EZAGUTZEN

Ibaialde programaren bitartez ibaia aztertut dute herriko ikasleek



Eusko Jaularitzaren Ingurugiro sailak Ibaialde izeneko programa martxan jarzen duen bigarren urtea da. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien azterketa egitea du programak helburu, eta hori egiteko behar duten materiala eskaintzen die azterketa hau egitea erabaki duten ikastetxei. Bestalde, ibaiaren azterketa egitean ikasleek gauza asko ikusi eta ikasi dituztela esan digute Pello Errota ikastetxeko irakasleek.

Pello Errotako 5. eta 6. mailako ikasleek egin dute Asteasun jaiop eta Billabonan amaitzen den Asteasu erreka azterketa. Erreka-
ren neurriak, fauna, inguruko landaretza, gizakiak errekan egin dituen eraldaketak eta askoz ere gauza gehiago aztertu dituzte ikasleek erre-

EKOSISTEMA MODU PRAKTIKOAN EZAGUTU DUTE

ka aztertzer bertara jaitsi diren bi egunetan. Helburuak ikasleek beren herria eta ingurunea ezagutzea eta ibaia zein egoeratan dagoen ikustea izan dira, eta bide batez, ikasleak ingurugiroa zaintzeko beharraz jabeaztea lortu dute.

Pello Errotako irakasleen esanetan, ikasleek modu praktikoa eta dibertigarri batean ekosistema oso bat ezagutzeko aukera izan dute, "beren herrikoa, gainera". Ikasleek oso gustura hartu dute parte ekimen honetan, eta erreka botatzen den zabor piloa eta erreka hasieratik amaiera bitartean fauna mota nola aldatzen den izan dira gehien harritu diena. Izan ere, erreka sortzen denetik bukatu bitartean jasaten duen kutsadura aztertze-
ko aukera izan dute.

• Asteasuko Gazte Asanblada

Idatzi honen bitartez jakinarazi nahi dugu gazte asanblada bat sortu berri dela Asteasun, eta honen inguruan 30 bat gazte bildu gara. Helburuak, herriko gazteak antolatzeara eta gu geu gure arazo eta kezkek aurrera eramateko gai izatea dira, horretarako gurea egokituko den dinamika propio bat sortuz.

Bertan etorkizun gertu batean egiteko zenbait ideia agertu dira, hala nola ikastaroak antolatu, txarлак eman, mendi irteerak egin... Jada martxan dira futbol, pala eta boleibol txapelketak, eta izena emateko zerrendak herriko tabernetan eta gaztetxean daude (finalak herriko festetan jokatu dira). AGAren (Asteasuko Gazte Asanbladaren) logotipoa erabakitzeko dugu oraindik, eta horretarako lehiaketa bat egingo dugu epe laburrean. Beraz, animatu zaitez zure ideiak aurkeztera (epea jakinaraziko da).

Horretaz gain, AGAk aurrera eraman behar dituen zenbait ekintza burutzeko, betiko oztopoa dugu: dirua. Hori dela eta, festetan, taberna bat irekitzeko asmoa daukagu lehen sagardotegia zegoen lekuan. Lokal hori udal txearrena denez, lokala uzteko eskaera luzatu diogu, eta orain, erantzunaren zain gaudela.

Gazte asanblada ostiralero biltzen da Gaztetxean gaueko hamarretan. Beraz, zure ideiak azaldu nahi baldin badituzu, badakizu nora jo.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

[En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

VIDEO CLUB



- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA



SASKIGINTZA IKASTAROA EUSKARAZ

**Eskola orduetatik kanpo
euskaraz aritzeko
aukera**

Ikasleak jo eta su lanean

Martxoan hasi eta gaur bukatu dute udal euskaltegiko ikasle eta irakasleek saskigintza ikastaroa. Ostiralero ostiralero, klaseak hasi aurretik beti, euskaraz aritzeko aukera paregabea izan dute euskaltegiko hamar ikasle eta hiru irakaslek. Ekimen honekin euskaltegiko ikasleak euskaraz hitz egitera bultzatu eta hori egin ahal izateko guneak sortu nahi dituzte.

Xestoak, bandejak, lorak jartzeko ontziak eta antzeko gauza bat baino gehiago egin du ikastaroko ikasle bakoitzak. Tolosako Teila taldeko Arantxa Munipia izan dute irakasle, eta

**EUSKARAZ
ARITZEKO
AITZAKIA**

euskaraz egiten zituen azalpenak adi-adi jarraitu dituzte saskigintza lantzeaz gain, euskara ikasten aritu diren ikasleek.

Iaz dantza ikastaroa antolatu zuten klasez kanpoko ekintza moduan, eta aurren, saskigintza ikastaroa antolatzea otu zitzaion euskaltegiko arduradunei. "Ikastaro hau ikasleak euskaraz aritzeko aukera edukitzeko antolatu dugu. Saskigintzari buruzko azalpenak euskaraz entzun behar dituzte, eta gainera, eure artean euskaraz hitz egiteko aukera ezinhobea eskaintzen du ikastaroak", azaldu digute euskaltegiko arduradunek.

• Udala lege antiterroristaren aurka

Martxoan izan ziren atxiloteten ondorioz, honako erabaki hauek hartu ditu udal jarraipen batzordeak atxilotetak egin zituzten modua nahiz atxilotuek komisaldegian jaso zuten tratua salatzeko:

- ✗ Atxilotuek nahiz bere senitartekoei behar duten laguntza sikologikoaren kostua udalak beregain hartzea
- ✗ Gobernu Zibilean atxiloteta indiskriminatu hauek salatzea.
- ✗ Lege antiterrorista eta horrek eragiten duen inkomunikazioa bertan behera uztea atxilotuaren integritate fisikoa eta sikiakoa arriskuan jartzen duelako.
- ✗ Polizia Nazionala, Goardia Zibila eta Entzutegi Nazionalaren antzekoak herritik alde egitea horrek suposatzen duen inposaketa dela-eta.
- ✗ Komunikabideek gai hauen inguruko informazioa serio trata dezaten eskatzen dute.
- ✗ Herri honek espainiar eta frantziar Estatuekin duen gatazka konpontzeko negoziazioa eta elkarrizketa bideari ekitea, bide polizialak alferrikako sufrimendua eragiten baitu.

ARTE

CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17



AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37

Tlf. 69 27 63

Fax 69 27 74

20150 BILLABONA

AIURRI

TELEFONOA: 300732
FAXA: 300731
DR. HUIZI, 15 1. ESK.



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELE. 59 35 49

IRRINTZIKO TXIRRINDULARIAK GOGOR

Zikloturista taldea osatzeko asmoa daukate

Rafa Buitrón eta Imanol Rodríguezekin bildu gara Irrintzi elkarteko txirrindulariei buruz hitz egiteko eta lortu dituzten garaipenen berri izateko. Lasterketa ugari eta postu onak lortu dituzte txirrindulariek, eta gainera, txirrindulari talde berriak sortzeko asmoa eta lasterketa gehiago egiteko nahia dutela azaldu digute Irrintziko kideek.

Rafa Buitrón, Imanol Rodríguez eta Nerea Bidaurretak infantil eta alebin mailako eskolarak entrenatzen dituzte, 12 txirrindulari guztira. Lehenengo urteko 4 kadeteak Rafa Buitrónen entrenatzen ditu, eta bigarren urteko 3 kadeteek berriz, Sergio Ariño dute entrenatzaile. Jubeniletako hiru txirrindulariekin Angel Mendez aritzen da entrenatzaile lanean, eta afizionatuak berriz, 20 txirrindulari afizionatuak alegia, Juanjo Gonzalezek entrenatzen ditu. Horixe da Irrintzi elkartea osatzen duten txirrindulari eta entrenatzaileen ekipoa, eta parte hartu duten lasterketetan postu onak lortu dituzte azkenaldian.

IRRINTZIKO TXIRRINDULARIEK LORTU DITUZTEN EMAITZAK

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPEL- KETAN KLASIFIKATU ZIRENAK:

Alebinak

Jokin Zendoia
Eneko Gurrutxaga

Infantilak

Mikel Izagirre
Oier Roteta
Iker Irazu
Haritz Arrospide
Mikel Aiestaran
Josu Aburuza

TALDEKAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA:

Alebin taldeak 5. postua lortu zuen
Eneko Gurrutxaga
Jokin Zendoia
Imanol Aranalde

Infantil taldeak 5. postua lortu zuen
Mikel Izagirre
Mikel Aiestaran
Iker Irazu

EUSKADIKO TXAPELKETA:
Lehenengo mailako kadeteetan
aurreneko taldean sartu zen:

Aitor Aierza
Bigarren mailako kadeteetan
Haritz Rotetak 7. postua
Mikel Labainek 20. postua

BIDASOAKO BUELTA BUKATU ZUTENAK: Afizionatuak

Enrike Piedra
Eduardo Gonzalez
Iñaki Gonzalez
Haritz Usabiaga
Eduardo Floro
Xabier Olano
Oier Egaña

• Oporretan udalekuetara

Billabonako Udaleko euskara zerbitzuak *Oporretan euskaraz* izeneko udaleku irekiak egingo ditu uztailearen 1etik uztailearen 18ra. Eskolaurretik Lehen Hezikuntzako bigarren mailara artean ikasten ari diren haurrek har dezakete parte udaleku horretan. Gaur da izena emateko azken eguna eta 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu haur bakoitzak. Helburua, urtero legez, jolas eta iharduera ezberdinen bidez haurrek oporretan ere euskaraz egitea da.



Malkar elizako aisialdiko taldeak host udaleku itxi antolatuko ditu udaran. Oilogioen herrian hiru udaleku ezberdin egingo dituzte. Lehenengoa ekainaren 26tik uztailearen 9ra egingo dute, eta bederatzi-hamar urte bitarteko haurrek hartuko dute parte bertan. Hamai-ka-hamabi urte bitarteko haurrak uztailearen 9tik 23ra joango dira bertara, eta abuztuaren 2tik 14ra berriz, hamahirutik hamalu urte bitarteko gaztetxoek izango dute udalekura joateko aukera. Hamalautik hamasei urte bitarteko gazteak udaleku ibiltari bi egingo dituzte, eta Billabonatik Oilogoienera eta Billabonatik Belaguara joango dira oinez. Lehenengora gaztetxoek eta bigarrenean berriz, zaharrenak joango dira.

Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko deitu 691289 telefonora lehenbailehen.



KALEBERRI

medikuntza zentrua

Ordutegia
Astelentik ostiralera:
18:00etatik 20:00etara
Larunbatetan
12:00etatik 14:00etara

Kaleberria, 8 behea 20140 ANDOAIN Tfno. eta Faxa: 943-592957

**Gida-agiri eta
arma
baimenatarako
ikerketak!**

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



JARRAIPEN BATZORDEAREN BIGARREN LANALDIA

504 herritarrek, 27 enpresek eta 7 elkartek sinatu dute euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen duen agiria

Duela urtebete inguru sortu zen Zizurkilen euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen duen udal jarraipen batzordea. EAJ-PNVek, HBek eta herriko talde ezberdinek osatzen dute batzorde hau, eta bi astean behin biltzen dira helburu horren inguruan egin daitezkeen ekintzak eztabaidatzeko eta egiteko. Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzeaz gain, kondenaren hiru laurdenak beteta dituzten presoak kalean uztea eta gaixotasun sendaezinak dituztenak aske uztea eskatzen dute.

Herritarren %40ak sinatu du udal jarraipen batzordearen eskakizunak biltzen dituen agiria. Urtebetean zehar jaso dituzte sinadura horiek guztiak, eta bien bitartean, herri afaria, mahaingurua, herriko kirol taldeen arteko lehiak eta gauza gehiago egin dituzte gaiaren inguruan. Ezbairik gabe, ekimen aipagarritzat jotzen dute urtarrilean Billabonan egin zuten manifestazioa Zizurkilgo eta Aiztondoko udalerriek.

HERRITARREI ESKERRAK

Orain, sinadura guztiak bilduta, espetxeetako zuzendaria den Angel Yusteri bidaliko dizkiete guztiak eta udal batzordearen lehenengo fasea bukatutzat emango dute. Agiria sinatu duten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete udal jarraipen batzordeko kideek, eta orain, bigarren fasea prestatzen ari dira burubelarri. Bien bitartean, herriko presoak bisitatzeko ahaleginak egiten ari dira, izan ere, nahikoa oztopo jartzen dizkiete espetxeetako zuzendariak udal jarraipen batzordetako kideei herriko lagunak bisitatzera joateko.

• Kepa Galarraga kalean.

Hilaren 29an utzi zuten Ubare auzoko Kepa Galarraga aske. Lau urte eta hiru hilabete eman ditu espetxean, eta lau gartzela ezberdin ezagutu ditu denbora tarte horretan. Herriko elkarte eta bizilagunek ongi etorri xume eta beroa eskaini zioten Kepari.

GIPUZKOAKO LEHENENGOAK

Zizurkilgo bertso eskolako taldeak lehenengo postua lortu du Gipuzkoako eskolarteko txapelketan.

Naroa Geresta, Jon Ormazabal, Ander Barandiaran eta Joseba Otaegi txapela buruan zutela etorri ziren Usurbildik herrira. Bertan ospatu zuten, maiatzaren 23an, Gipuzkoako lau bertso eskolen arteko finala, eta Zizurkilgoa izan zen garaile.

Soinuak lagundurik kantatu zuten agurra, eta bertsolari bakoitzak bestearen berri ematen zuten bertsoak abestu zituzten. Ondoren, Jonek eta Naroak bertso bana abestu



zuten eman zizkieten lau oinak erabiliz. Ander eta Josebak berriz, eman zieten gaiarekin egin zuten bertso bana. Usurbilen aparteko giroa izan zela esan digute bertsolariak, eta gustura daude lehenengo postua lortu dutelako.

JOSEBA OTAEGI ETA JON ORMAZABAL EUSKADIKO TXAPELKETARA

Ekainaren 29an Mungian egingo duten Euskadiko txapelketan hartuko dute parte Joseba eta Jonek, baina oraingo honetan bakarka hartuko dute parte, ez taldean. Beraz, zorte ona opa beharko diegu bi bertsolari gazte hauei.

Aipamen berezia jaso zuen bertsoa:

*Kotxe berria erosi behar
emana dute zartada
eta gu ere diru aldetik
nahiko aberatsak gara
aholkutxo bat emango dizut
ongi entzun zazu hara
Ferrari on bat erosi ezazu
nirretzat izango bada*

Gaia: Gurasoek kotxea erosi behar dute eta aholkua eskatu dizute

Egilea: Joseba Otaegi

Loitzo
Etxeko Osagaiak
LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK
Errota kalea. - 3 69 21 35 BILLABONA

ALFARO
JATETXEA
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27

Aduna

ANDRETEGI BASERRIA, LOREAK ZAINDU ETA SALDU

Adunako Andretegi baserriko Loli Olasagasti loreetatik bizi da. Baserrian egun osoan jarduten dute loreak zaintzen. Loreak hazi, bildu, saldu... lan ugari egin behar izaten dute egun osoan zehar, eta guk, lan gogor horren berri izan dugu.

-Zenbat urte daramazu loreak zaintzen eta saltzen?

Baserrian bizi garenez, betidanik baserriko lanetan jardun dugu. Gana-dua, barazkiak eta antzekoak genituen baserrian, eta duela 18 urte larrosa eta klabelinen lehen negutegia jarri genuen. Piskanaka-piskanaka negutegiak gehituz eta lore desberdin gehiago landatzen hasi ginen eta egun, loreak produzitzeaz bizi gara.

-Nolakoa da lan egun normal bat?

Baserriko edozein lanen antzekoa. Goizeko seietan jaiki eta Donostiako Bretxara joan ohi naiz loreak saltzera. Eguerdiaren ondoren, ordubiak aldera, etxera etortzen naiz eta arratsaldean loreak zaindu eta bildu egiten ditut. Hurrengo egunean loreak saltzeko prestatzen ditut, paketetan eta kopuru jakin bat bilduz.

-Zein lore mota landatzen duzue?

Moztutako loreen produkzioa, hau da, lore sortak egiteko loreak zaintzen ditugu. Gure baserrian, kolore eta mota ezberdinetako alstroemeria, larrosa, freesia, tulipanak (udaberrian), gerberak eta irisak landatzen ditugu, besteak beste.

-Azpiegitura berezirik behar al da loreak produzitzeko?

Lehenik eta behin, lurra analizatu behar da. Lurrari behar duena eman behar zaio: simaurra, nitrogenoa, fosforoa, magnesioa... Lurraren egokitasuna ziurtatu ondoren, negutegia ezartzen da. Egun, 2.700 metrotako negutegia dugu. Lurrazpitik eta sapaialdetik ezarritako ureztatze sistema, ur tankea, berogailua, pantaila termikoa, kamara, eta traktorea ere badugu loreak produzitu ahal izateko. Horiek guztiak beharrezkoak dira loreak produzitzeko.



Loreak egunero zaintzen dituzte

-Zein zainketa mota behar dute loreak?

Loreak ondo mantentzeko zurtzina zentimetro bat edo bi moztu eta ur garbitan sartzea gomendatzen dut. Egunero ura aldatuz eta zurtzina zerbait gehiago moztuz gero askoz hobea. Gainerakoan, produkzioari dagokionez, lurrari behar duena emateaz gain, gaixotasunak jo baino lehenago antzematean dago kaskoa.

-Zeintzu dira zuen bezeroak?

Normalean loreak merkatuan saltzen ditut. Horrez gain, maioristei, dendei eta partikularrei saltzen dizkiet loreak. Loreak ezagutzen di-

tuztenak izan ohi dira bezeroak, loreak crostera ohituta dagoen jendea.

HILERO BAT
GUTXIAGO
JANEZ GERO ...



BAREAREN OSTEAN

Enpresa, komertzio eta etxe ugari izan dira kaltetuak

Maiatzaren 31ko gaua eta ekainaren lehenaren goizean euri jasa bota arren, herritarrek ez zuten espero uholderik gerta zitekeenik. Goizeko bederatzietatik hamarretara eginiko euri jasengatik, eta Buruntza eta Pagamenditik jaitsiriko ur-jausiengatik Kaletxiki eta Bazkardo urez estalirik zeuden guztiz. Urak bi-dean aurkitzen zuen guztia eramaten zuen eta bat baino gehiago kotxerik gabe gelditu zen. Auzo horietako etxe, garaje edota komertzioetan metro t'erdi eta bi metrotaraino iritsi zen uraren neurria. Argi falta eta telefonoz ezin deitu geratu ziren herritarrak ere ugari izan ziren. Gurutze Gorriak zodiaketaz baliatuz, etxe barruan geratu ziren biztanleak erreskatatzeko lanetan jardun zuten eguerdian. Suhiltzaileek, DYAko bolondresak, Andoaingo udal langileek eta herriko biztanleek lan ugari izan zuten uholdearen eragina eta hondamendia gutxitu nahian.



Berrozpe ikastetxea eta dorretxea urez estalirik. Argazkia: Manu



Buruntza menditik jaitsitako urjauziak. Argazkia: J.I. Unanue

Kalaxilatar askok ezin izan zuten ezotik atera. Argazkia: Unanue



Udaleko langilea estolda garbitzen. Argazkia: Manu


, DATOR EKAITZA.



Gurutze gorrikoak erreskate lanetan. Argazkia: J.I. Unanue



Ernatza hartu eta tsukuntzeari ekin zioten. Argazkia: Manu




Berehala hasi zen jendea garbitze lanetan. Argazkia: Manu



Kotxe asko ur azpian gelditu zen. Argazkia: J.I. Unanue



Bazkardo auzunea urez estalirik geratu zen. Argazkia: J.I. Unanue



Estropadetarako aproposa gelditu zen bidea. Argazkia: J.I. Unanue



Berrozpen urak bi metrotako altuera hartu zuen. Argazkia: Manu



Kortinen marvari erreparatu! Argazkia: Manu




Antzoko inndiak ikusi ahal izan genituen. Argazkia: Manu

Enpresa eta komertzioak

Inor zauritu ez arren, Bazkardo aldeko komertzio, tailer, taberna, etxe eta enpresek kalte handiak izan dituzte. Cenia, Orbelan eta Plastigaur enpresen galerak, 2.200 milioietakoak dira eta kaltetuak izan diren beste komertzio eta tailerak kontutan hartuz, 4.000 milioetatik gorakoak dira. Donostialdea, baita Andoain ere, hondamen gunetzat izendatuko duten edo ez erabakitzeke dago oraindik. Dirulaguntzak jaso arren, menditik behera jaitsitako uholdeak eragindako ondorioak ez dituzte erraz ahaztuko herritarrek, bereziki, kalteak jasan dituztenek.




Bazkardoko inguruetan hondaketa gogorra. Argazkia: J.I. Unanue



Plastigaur enpresako parkea bertan behera erori zen. Argazkia: J.I. Unanue



Kaletxikiko nekazaritza kooperatiba ia osorik galduta. Argazkia: Manu



Kaletxikiko lurindegian ama-alabak urak harrapatuta. Argazkia: J.I. Unanue



Garaje ugari kaltetuta izan zen. Argazkia: Manu


Bitxikeriak




Erreala-Tenerife partiduko arbitroa Iruñatik Anoetara zihoala Andoainen gelditu behar izan zuten. Argazkia: Mikel

Ekainaren lehena ez zen egun normala izan. Herriarrez gain, errepidean zihoazen kanpotar askok Andoainen gelditu behar izan zuten; atzerriko nahiz Gipuzkoako beste herrietako 300 pertsona inguru Andoainen geratu ziren, beste inora joan ezinean. Udalak, pertsona horientzako jana eta mantak bildu ondoren, frontoira eta La Salle ikastetxera eraman zuen jende kopuru handi hori. Haurren euskal jaialdira etorririko gazte eta haurrek ere ezusteko handia izan zuten Andoainera iritsi zirenean. Donostiar gazte batek Ama Kandida etorbideetik zihoala uraren indarrak ohartu zenean kotxetik irten eta arbola batera igo zen. Ordu t'erdi arbola gainean egon behar izan zuen, suhiltzaileek erreskatatu zuten arte. Errealeko partidua arbitratu behar zuen arbitroa ere Andoainen gelditu zen ezin mugiturik.

Uholdearen hondamendi handiak direla eta kalteuek behar duten informazioa lortzeko informazio bulegoa zabaldu dute Andoaingo Udaletxeko udalbatzar gelan.



Suhiltzaileek lan ugari egin behar izan zuten. Argazkia: J.I. Unanue



Ama Kandida etorbidea itsaso bihurtu zen. Argazkia: Manu



Espetakulo tristea. Argazkia: Manu

Beterri-Aiztondoko urak

Andoaingo uholdeak defintitzeko adjetiborik bilatzea zaila gertatzen da. Ordubeteko tartean hainbeste hondamendi gerta zitekeen inork sekula ezin pentsa zezakeen. Andoain ezezik, Zizurkil, Billabona, Aduna, Asteasu eta Larraulen ur putzu ugari zegoen herriko kaleetan.

Zizurkilen Joxe Arregi plaza urez estalirik agertu zen guztiz. Baserrietako bideak moztuta eta garaje eta enpresetan ura sartu zen arren, ez da galera handirik izan.

Billabonan, gainerako herrietan bezala, ura menditik jaitsi zen eta Kale Nagusiko eta Txermingo bajeatan ura sartu zen.

Adunan, lurjauzi ugari erori zen errepideetara baina ez zen hondamendi handiagorik gertatu.



Zizurkilgo plaza ere igerilekua zirudien. Argazkia: Xofor



Zenbait lekutan zodiac-ekin bakarrak ibil zitekeen. Argazkia: J.I. Unanue



Nondik hasi?. Argazkia: Manu

ANDOAINGO KALTEAK

35 enpresa
30 komertzio
105 kotxe
10 baserri
16 etxebizitza
20 garaje eta bajera

KALTEAK PEZETETAN

2.200 milioi enpresetan
100 milioi bide publikoetan
350 milioi baserriko lur eta bideetan

Billabona-Amasa



Ezaguna da oso Joxe Ramon Galarraga bere herrian eta inguruko herrietan. Denbora luzean aritu da Kike Amonarriz tolosarrarekin batera herri txistek kontaktzen eta herri afari batean baino gehiagotan giroa jartzen. Horrezaz gain, zapatilak eta galtza motzak jantzi eta ttipitapa korrika askotan ikusten dugulako da ezaguna bera. Hori nahikoa ez eta, Goenkalen ari da lanean orain Joxe Ramon; Txominen papera egiten, hain zuzen.

Amasako Joxe Ramon Galarraga, GOENKALEKO Txomin

-Nolatan Goenkalen?

-Euskal Telebistak urte amaieran egin zuen programan txistek kontaktzen aritu nintzen Kike Amonarriz eta beste lagun batzurekin batera. Goenkaleko zuzendariak nire emanaldia ikusi, gustatu eta etxera deitu zidan duela hiru bat hilabete Goenkalen lan egin nahi ote nuen galdetuz. Nik lanean hasi aurretik frogatzen egin nahi nuela esan nion, sekula ez baitnuen horrelako lanik egin. Frogatzen egin eta baiezkoa eman zidaten segituan. Nire berezko laneko ordutegia egokitu behar izan dut Goenkalen lanean hasteko, baina ez dut inolako arazorik izan. Izan ere, ez dut Miramonera egunero joan beharrik, eta beraz, egun batean lantokian lan gutxi egin arren, beste egun batean gehiago egiten dut. Hala ere, Goenkaleko lana hiru hilabeterako bakarrik delako hartu dut.

-Zein pertsonaia egiten duzu? Zenbat denbora iraungo du Goenkale?

-Txomin izeneko gizarajo baten papera egiten dut. Herriko gi-

zarajoa izan arren, ordea, zerbait garrantzitsua argitzen lagunduko du berak, baina ezin dut esan zer izango den! Izan ere, tonto planta duen pertsona bizkorra da Txomin. Hiru hilabeteran zehar agertuko naiz Goenkalen, uztaileko bukatuko dut nire eginbeharra. Hala ere, Goenkaleko zuzendariak ez dakite ziur ez nire pertsonaia ez gainerako pertsonaia guztiek zenbat denbora iraungo duten.

-Zer moduz moldatu zara gidioa ikasten eta antzetzten?

-Ba egia esan nahikoa ondo moldatu naiz. Pertsonaia ez

du asko hitz egiten, hasierako kapituluetan behintzat, eta beraz, konfidantza piska bat hartzeko denbora izan dut. Hizketan hasi ordurako Goenkale egiten duen

jendea ezagutzeko aukera izan dut, gauzak nondik nora doazen ikusteko denbora eduki dut. Horrek guztiak asko lagundu dit.

-Egunetik egunera egiten dute Goenkale, ezta?

-Bai, horrela da. Jendeak saioari egiten dion harreraren arabera moldatzen dute saioa. Bestalde, aktore batekin ez badira ongi moldatzen, hau da, diruaren inguruan akordio batetara heltzen ez badira, berak antzetzten duen pertsonaia hil edota bidai bat egitera bidaltzen dute.

-Nolako giroa dago zuen artean, hau da, Goenkaleko aktoreen artean?

-Nik uste nuen baino giroa hobea dago, ezusteko positiboa hartu dut alde horretatik. Goenkalen

**"Zerbait
garrantzitsua
argituko du
Txominek"**

**FRANCISCO
MENDIKUTE
Harategia**



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Anaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

Z I Z U R K I L

ageri diren aktoreak beren pertsonaiaetatik nahikoa ezberdinak dira, eta beraz, ezin dira telebistan ikusten dugunaren arabera baloratu. Hala ere, oso giro ona dago orokorrean.

-Goenkale egiten duzuen batzuk ez zarete, berez, aktore. Aktoreak baino jende ezaguna kontratatzen al dute, ala?

-Ni eta Iñaki Perurena, adibidez, ez gara aktore. Hala ere, gainerako aktore guztiak antzerkian eta telebistan lan asko egin dutenak eta egun ere egiten ari direnak dira. Antzerkian edota beste telesail batzuetan lan egiten duten aktoreak daude, baina bikoizketa lanetan jarduten duten bat baino gehiago ere. Gauza askotan ari dira lanean Goenkaleko aktoreak.

Bestalde, egia da diru gehiago inbertituz gero aktore hobekak kontratatuko lituzketela, baina aktore askok hartzen dute parte, eta hori ere asko kostatzen da. Figurante moduan ehunetik gora lagunek hartu dute parte.

-Orain, kalean, Orion hain zuzen ere, eszena asko grabatzen dituzte. Kontaiguzu nola egiten duten hori.

-Orioko eszena guztiak asteko egun batean grabatzen dira. Bertan kanpoko eszenak grabatzen dira, eta egun guztian zehar egiten da hori. Miramonen berriz, beste eszena guztiak grabatzen dira; horietako batzuk Miramongo platu batean eta beste batzuk Miramonen kanpoan dauden dekoratuetan.

-Euskara asko zaintzen dute, ezta?

-Bai, horrela da. Aktoreen euskara asko zaintzen dute, eta Goenkale Amasakoek bakarrik ez dutela ikusten behin baino gehiagotan gogorarazi didate. Hala ere, euskara batuan hitz egitea nahikoa artifiziala egiten zait, nahiz eta nire pertsonaia dela eta gutxi hitz egin behar izaten dudana.

-Eta, zer moduzko esperientzia izan da Goenkale aktore lanean aritzea?

-Oso ona. Jende berria ezagutu dut, lan berri bat egiteko aukera izan dut... niretzako dena berria izan da. Gainera, nahikoa barre egiten dugu kapitulu bat egiten ari garen bitartean. Askotan, gra-



“Uste baino giro hobea dago Goenkaleko aktoreen artean”

batzen hasi eta ezin grabaturik izaten gara barreak ezin eutsirik. Bestetik, ordea, leher eginda eta zertxobait nazkatuta bukatzen dugu batzuetan. Izan ere, askotan gauza bera errepikatzea nekagarria da, eta entsaiuak egiten eta grabatzen eszena asko egiten ditugu.

-Etxean ikusten al duzue Goenkale?

-Bai, ikusten dut. Akatsak eta horrelakoak ikusteko ona da. Etxekoek eta ingurukoek ongi egiten dudala esaten didate, eta beraz, gustura nago alde horretatik.

-Eta txisteak kontatzeari utzi egin al diozu?

-Kike eta biok denbora luzean ibili ginen txisteak kontatzen, eta azkenean, nekatu egin ginen. Oso astuna da asteburuerok alde batetik bestera txisteak kontatzen ibiltzea,

errepertorioa ere bukatu egiten zaizu, gainera. Telebistan ere asko irten ginen, eta nik uste dut gutaz aparte jendea ere aspertu egin genuela.

HILERO BAT
GUTXIAGO
EDANEZ GERO...



ASTEASU

BIZITZAREN SOKA

**Santos Urkola
sokagilearekin
solasean**



Santos eta bere emaztea soka egiten

Hamalau urte zituenetik ari da Santos Urkola asteasuarra sokak egiten. Ardiaren eta zaldiaren ilearekin egiten ditu sokak Santosek, eta soka hauek kalitate ona duten arren, egun, bestelako sokak erabiltzen direla aitortu digu sokagileak. Asteasuko artisau erakusketan bere lanak ikusteko aukera izan genuen, eta Errenderiko erakusketan ere hartu du parte. Izan ere, lanerako baino adornorako erabiltzen dira gaur egun garai batean hain beharrezkoak ziren soka hauek.

Asteasutik Aiara joateko bidean bizi da Santos Urkola, Sarobe baserrian, hain zuzen. Behi batzuk, oiloak eta zakurrak dira, besteak beste, baserrian dituzten abereak. Bere esanetan zaila da baserriatik bakarrik bizimodua ateratzea, eta gainera, garestia da abereak zaindu eta aurrera ateratzea. Beraz, exherako behar duten elikagaia bakarrik ateratzen dute baserriatik, eta soldata, semeek ekartzen dute lantegitik. Hirurogeita sei urte ditu Santosek eta mende erdia darma bere amak, izebak eta inguruko baserritarrek erakutsi ziotena egiten: sokak, alegia.

ILEA HARI BIHURTU TXABILA ERABILIZ

“Ardi ilea oso goxoa da, baina zaldiaren ilea, nahiz eta lakarragoa izan, denbora luzean iraungo duten sokak egiteko hobea da”, azaldu digu Santosek ardi ile mordoska bat eskuan hartuta. Bi ile mota hauek nahastuta egiten ditu sokak, soka goxoa eta aldi berean gogorra egiteko. Bi kilo t’erdi ile erabiltzen du, gutxi gorabehera, soka bat egiteko, baina hori bai, oso ongi garbitu behar da ile hori: “Ileko zikinak eta grasak ez du uzten ile horrekin haria ongi egiten, eta gainera, grasak ilea erre egiten du kalitate txarrekoa eta apurtzeko erraza bihurtuz”. Ilea ur beroa eta xaboa duen ontzi handi batean edukitzen dute ongi garbitu arte, eta ondoren, lehortzen jartzen dute. Behin ilea garbia eta lehorra dagoenean, eskua-ekin ilea askatu eta ile horrekin haria egiten du asteasuarrak. Txabila izenekoko egurrezko tresna bat erabiliz, ilea hari bihurtzen du Santosek. Tx-

bila giraka ibiltzen da, eta bitartean, ilea, txabilaren izkin bateran biltzen du sokagileak. Haria txabilaren bueltan biltzen joaten da, ilea, hari bihurtzeko, txabilatik pasatzen ari den bitartean.

*Haria txabilaren
bueltan biltzen
joaten da, ilea,
hari bihurtzeko,
txabilatik pasatzen
ari den bitartean*

ARDI ILE ONA

Baserrian ez dute ardirik, eta beraz, aldamenean bizi den artzainaren ardi ilea erabiltzen dute haria egin eta sokak egiteko. “Behin esan zidaten ardi ile hau kanpoko ardiena zela, eta nik baietz erantzun nuen; ardiak kanpoan ibiltzen zirela, alegia!”, esan digu Santosek umoretsu. Kalitate oneko ilea erabiltzen du sokagileak haria egiteko: “Ahalik eta ilerik garbiena eta lisoena erabiltzen dut”.

HARITIK SOKA EGIN BITARTEKO BIDEA

Behin haria eginda, ardi ilearekin bakarrik edota ardi ilea eta zaldi ilea nahastuta, soka egiten hasten dira Santos eta bere emazte eta semeak.

“Laupabost pertsona behar dira soka behar bezala egiteko, izan ere, batzuk sokaren bi izkinak eusten dituzten bitartean hariak bihurritu eta trenztatu egin behar dira”, adierazi digu sokagileak. Hamabi-hemezortzi hari dituzten sokak egiten ditu, eta hari guztiak airean eta ongi tinkatuta egon behar dira soka egin bitartean. “Hari guztiak bihurritu eta hiru multzo ezberdinetan sailkatzen dira, eta gero trentza bat egiten da hiru hari multzoen artean” azaldu digute Sarobe baserriko bizilagunek soka egiteko jarraitu beharreko prozesua zein den ongi uler dezagun.

Eskatu ahala egiten ditu sokak Santosek, enkarguz, baina egun lehen baino gutxiago erabiltzen direla esan digu: “Gaur egun, batik bat, adornorako erabiltzen da soka mota hau”.

EHUN URTETIK GORAKO TRESNAK

Garai batean beharrak jota egiten zituzten gaur egun artelanak kontsideratzen ditugun hainbat lan. Santosek bere izeba eta amarengandik ikasi zituen soka egiteko ikasi beharrekoak, eta oraindik gordetzen eta erabiltzen du garai bateko egurrezko txabila bat, “ehun urte inguru baditu txabila horrek!”. Soka egiteko erabiltzen dituen tresna guztiak berak eginikoak edota berari utzitakoak dira, baina hori bai, guztiak eskuz eginikoak dira. Garai batean sokak etxe-koek eta inguruko askok egiten zi-

tuztela azaldu digu Santosek, eta artilearekin galtzerdiak eta jantzi gehiago egiten zirela gaineratu digu. Saskiak ere askok egiten omen zituzten, “zentral hidraulikoetako langileek esate baterako, beren soldata baino gehiago irabazten zuten lanean zeudela egiten zituzten saskien bitartez”, aipatu digu sokagile asteasuarrak bitxikeria moduan.

*“Gaur egun,
batik bat,
adornorako
erabiltzen da
soka mota
hau”*



Santos ilea txabilatik pasatzen

LANABES IZATETIK ERAKUSKETA-KO PIEZA IZATERA

Sokak nola egiten dituen eta nolakoak diren ikusteko, erakusketa ugaritik deitu diote Santosi. “Garai batean astoak lotzeko edota abarkak lotzeko sokak izan direnak, adornorako sokak dira orain”, esan digu sokagileak bere soken erabileraz galdetzean. Gainera, gaur egun sokak

listarekin egiten dira, baita plastikoarekin ere, eta azkarrago egiteaz gain, gehiago irauten dutela aitortu digu Sarobe baserriko artisauak. Izan ere, lehen sokak lanerako behar zituztela egiten zituzten, saskiak eta gauza gehiago bezala, baina gaur egun erakusketetarako edota apaingarri moduan erabiltzeko egiten dira.

BILLABONAKO EUSKALTEGIA

- EGA IKASTAROAK 5 EDO 3 ORDUKOAK
- TAILERRAK ETA IRTEERAK EUSKARAZ
- ADMINISTRARIEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA
- EUSKALTZAINDIAREN AZKEN ARAUAK
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

MATRIKULA EPEA: EKAINAREN 16TIK 27RA 6ETATIK 8ETARA
ERREBOTE PLAZA ☎ 69 25 36

Asteasu

Luistarren bidaiaria Lurdesera. 1958



- 1-Bitter Cabirondo (Irtzubiaga)
- 2-Juan Segurola (Goiko ostatu)
- 3-Jose Agustin Sarasua (Zelaieta)
- 4-Julio Barzana (praktikantea)
- 5-Ambrosio Oñazpi (Ixistularia)
- 6-Jose Antonio Olegi (Arretxe)
- 7-Juan Sarasola (Ibarrazpi)
- 8-Pako Irazu (Moñu)
- 9-Ramon Sorarrain (Alkiza)
- 10-Jose Eizmendi (Eizmendi)
- 11-Jose Tolosa (Alkiza)
- 12-Jose Joakin Aginaga (Urki)
- 13-Luis Maiz (Urkidizar)
- 14-Paulo Izarraga (Torre)
- 15-Estani Zabala (Aizti)
- 16-Eulogio Iraola (Uxtarri)
- 17-Santi Eizmendi (Indaia berri)
- 18-Pedro Zapirain (herriko apaiza)

- 19-Feliziano Garmendia (Altzarte)
- 20-Zelestino Tapia (Antas Ilurri)
- 21-Antonio Caritano (Lanbitegi)
- 22-Juan Legarra (Agerre behekoa)
- 23-Jose Agustin Arteaga (Bulano)
- 24-Jose Maria Olegi (Ibia)
- 25-Jose Garmendia (Behoko Errota)
- 26-Datxi Iluriez (Andretza)
- 27-Antonio Sarasua (Zelaieta)
- 28-Jose Luis Elxeberria (Elxeberriku)
- 29-Jabier Iraola
- 30-Angel Zumeta (Txuringain)
- 31-Feliziano Jauregi (Xeberone)
- 32-Datxi Sarasola (Ibarrazpi)
- 33-Jose Luis Agote (autobus gidaria)
- 34-Ascensio Gaztañaga (Arretondo)
- 35-Antton Elxeberria (Elxeberriku)
- 36-Jose Maria Imaz (Zalmina)

- 37-Hilario Usandizaga (Sagastume)

Oraindik ezkongabeak ziren asteasu-argazkiek egiten zuten txangeeetako bat da argazkia ageri dena. Luistarrak deitzen zitzaizkien ezkongabe ziren gizonetako hauei, eta mariatarrak berriz, ezkongabeak ziren emakumezkoak. Argazkia Lurdesera egin zuten txango batekoa da, eta Lurdeseko Ama Birjinaren ageraldiaren 100. urtemuga ospatu zuten urte horretan. Hori ospatzeko edo, egun horretan Lurdesen 4.000 gipuzkoar inguru bildu zirela esan digute. Informazioa eta argazkia Hilario Usandizagak eskaini digu.



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

Ngeltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

PATXINE
JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXENKO POSTREAK
Errementari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

Iñaki Arregi Moraza. Andoaingo Odol Emaileen Elkarteko lehendakari ohia.



-Zergatik utzi duzu lehendakaritza?

Hogeita lau urte asko dira, beharbada gehiegi. Jende gaztea behar da, lanerako ardura eta gogoa duena. Orain Josean Antonio San Juan dago lehendakari. Beste hamalau lagun bildu dira bere inguruan, eta bi taldetan banatu direnez, lana azkarrago egiten dute.

-Nolatan sartu zinen elkartera?

Hasieran ez nengoen odol emaiileen elkartearen barruan. Aspaldian lagun talde bat elkartu eta odola eskatzen ibiltzen ginenez ezagunen artean. Baina odola ematen zutenekiko zorrietan gelditzen ginela sentitzen genuen. Hori dela eta, 1972.an odol emaiileen elkartearen sartu nintzen.

-Zein izan da zure lana?

Taldean egiten dugu lana. Lehendakaritzaren ardura nik eduki arren, talde oso batek ditu lan horiek guztiak. Berrehun odol emaille baino gehiagori telefonoz deitu, odola ateratzen beharrek eguna eta ordua iragartzeko kartel informatiboak egin, eta elkarteko odol emaille eta odol kantitatearen kontrola egiteko txostenak burutzen ditugu.

-Jendea jabetzen al da odola ematearen garrantziaz?

Jendeak odola emateak garrantzi handia duela jakin arren, HIESa eta beste gaitz batzuk direla eta, jendeak odol transfusioetan gaisotzeko duen beldurra handia da oraindik. Horren aurrean, odola ateratzeko ekipoak esterilizatuta daudela eta erabili ondoren bota egiten direla azaldu beharra daukat. Beraz, ez dago arriskurik.

-Edonork eman al dezake odola?

Ez. Odola eman aurretik tentsioa hartzen dizute. Ondoren, sendagileak azterketa bat eta zenbait galdera egin ondoren, zure odola erabilgarria den edo ez erabakitzen dute. Gutxienez hamazortzi urte eta gehienez hirurogeita bost urte eduki behar dira. Muga horretatik kanpo inork ezin du bere odola eman.

-Zenbat odol ateratzen dute ateraldi bakoitzean?

Odola ematera joaten zaren bakoitzean 400-450 cc ateratzen dizute. Odola hilerok ateratzen dute Andoaingo ambulategian, baina odol emaille bakoitzak ezin du hilerok odola eman. Gizonek hiru hilabetetik behin baino ezin dute odola eman. Emakumeak berriz, lau hilabetetik behin. Odola ematea zerbait erraza eta sinplea dela azpimarratu behar dut. Beste bi laguntzeko eta egin duzunarekin gustura sentitzeko balio du, gainera.

-Zer egin daiteke jendeak odola eman dezan?

Garrantzitsuena eta positiboa ahoz ahozko komunikazioa da. Odol emaille bakoitzak beste lagun bat odola ematera animatuko balu, egun lauhun emaille izan beharrean zortzi-rehun izango genituzke. Hala ere, azken hilabeteetan jende asko hasi da odola ematen, eta horietatik asko gazteak dira.

Herriko txokoak



Hona hemen gure lehiaketa berria. Pertsonaia ezutuaren orde, Beterri-Aiztondoko herri bateko txokoren bat agertuko da. Zuek zein herri eta zein txoko den asmatu beharko duzue. Txoko horietako batzuk ezagunak dira, beste batzuk ez hainbeste, baina badakigu herritar askok ezagutzen dituzten tokiak direla. Zein txoko den ez baldin badakizu edota ziur ez bazaude, galdetu etxekoren bati. Animo eta zorte on!

Lehiaketako lehen saria Tolosako Puntuz Puntu dendak eskainiko du. Oparia, kojn polit bat egiteko hariak eta tresneria dira.



ERAKUSKETA**ANDOAIN**

Ekainak 20-29: Pintura, arte aplikatuak eta zerami-ka ikastaroetako lanen erakusketa.

MUSIKA**ANDOAIN**

Ekainak 20: Euskal musika programaren bar-ruan Iñaki Eizmendiren emanal- dia, La Salle antzokian.

IKUSENTZUNEZKOAK**ASTEASU**

Ekainak 13: Jesus Mari Irazuren "Urrutiko lu-rralde eta kulturak: Australia" iku-sentzunezkoa. Kultura Etxean, arratsaldeko 20:00etan.

BESTE**ANDOAIN**

Ekainak 22: Ontza elkarteak antolatuta, txirrin-dularitza proba.

IBILALDIAK**ANDOAIN**

Ekainak 29: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, Iramendira irteera.

BILLABONA

Ekainak 21-22: Aizkardi mendizale elkarteak anto-latuta, Gourges Blancs eta Bachi-mala mendietara irteera.

MERKATU TXIKIA**ANDOAIN**

Etxea eta garajea salgai: 72m . Su- kaldea horniturik, egongela han- dia, 2 komuna, 3 gela; altzariak ere. Ganbara. Garaje-plaza. Tfnoa: 300698 (gauze).

Nazkatuta nago, euskal presoak Euskal Herrira!!!

Euskal gizartearen eskaerei muzin Madrilgo agintariek, presoak ez omen dituzte Euskal Herrira ekarriko eta Euskal Herrira diot ez 300 ez eta 2 kilometrotara . Beraz, euskaldunon hitzak ez baldin badu balio, zein bide gelditzen zaigu?

Uneotan euskal presoak urrunduak izaten jarraitzen dute, hilabeteren buruan Jon Tapia euskal presoak 2 traslado-tortura jasan behar izan ditu Kanarietatik Madrilera, presoak jipoituak izaten ari dira gartzeleroen eskutan, bituztera obligatua eta ukatzen bazara jipoia, bailara honetako zenbait eus- kal preso baldintzapeneko askatasunaren arabera kalean behar lukete eta bahituak jarraitzen dute, baina bahitu hauek ez dituzte komunikabideetako us- tezko langileen hitzetan inolako aipamenik merezi, are gehiago, presoek kritika erakitzaitelak igortzen dizkietenean mehatratuak sentitzen omen dira. Bai- na ez al dituzte presoak mehatratzen Diario Vasco eta gisa horretako sasikomunikabideek presoen inqu- ruan gezurrak besterik publikatzen dituztenean?

PWko jauntxoak ere ezin ahaztu ditzagket, pre- soen eskubideak, euren negoziaketa merkeak egiteko trona bezala erabiltzen dituztenean, bestela ikus ku- poaren negoziaketa.

Bitartean euskal presoek euskal gizarteari zu- zendutako azken agirian, udazkenerako euren esku- bideak errespetatzen ez badira, orain artean eraman duten borrokan urrats sendoagoak emango dituztela zioten.

Pertsonalki presoan gogoeta honek izugarri kez- katzen nau, nazkatuta bait nago euskal presoek hainbeste borroka egin behar izateaz nazkatuta, lerro hauek berriz billabonatan guztiak deitu nahi ditut, eu- ren konpromezuarekin euskal presoan eskubideen de- fentsan urratsak eman ditzagun.

Azkenaldian horren inguruko adibideek badituzte Billabonan, AEK lagunek eginiko baraualdia, In- tzak Lasai eta Jun Da Bertan kuadrilek antolatu- riko futbito txapelketa, herri ekimenaren jaiotza... Aurrera lagunok jarrai dezagun horrela eta tortuko duzu, eskerrik asko!

Esti Amenabarro,
pedagogia ikaslea eta amnistiaaren aldeko komiteakidea

KOMIKIA

EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO...



Eman ezazu izena AIURRI-n, eta UZTAILETIK AURRERA hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. Hilero 200 pta. baino ez du balio, bi pintxo, kaina batek, edo bi kafek adina.

BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Kodea: Herria:

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko[☎] : Laneko[☎] :

Nora eraman txartel hau: Andoainen, Billabonan eta Asteasun: Gipuzkoa-Donostia Kutzara edo Euskadiko Kutzara. Gainera, Andoainen: Aiurrira bertara edo Delgado, Ernaitza, Ikas-Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. Billabonan, Kultur etxe edo euskaltegiatar eta Basajaun liburudendara. Zizurkilen, Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. Asteasun, Kultur etxera. Adunan, ostatura. Larraulen, herri-ostatura.

KONFIDANTZA.




Egunetik egunera, hobetzen ari gara.



KIDEGASEKO BEZEROEN
ARRETARAKO ZERBITZUA

900 121 775

GASA INSTALATZEAZ GAIN AHOLKU ETA GOMENDIOAK ERE EMATEN DIZKIZUGU



ERREGAILUEN GILTZA ONDO
HERTSIRIK DAGOELA EGIAZTA-
TU EZAZU ETA APARAILUAREN
LOTURAKO GILTZA ISTEN
AHALEGINDU ZAITEZ.



idegas, s.l.

GASA ETA BEROGINTZA

ZURE GAS AHOLKULARIAK

Tolosaldea L.H. Institutua (Publikoa)



➔ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE INGURUKO ENPRESETAN

- Instituto honen bidez lana aurkitu dute:
1994. ean → 52 ikaslek
1995. ean → 60 ikaslek
1996. ean → 77 ikaslek
- Lankidetzaren hitzarmenak 62 enpresekin

➔ KALITATEA ERREALITATEA DA

- Kalitate proiektua dugu.
- Kalitate batzordea martxan dago.
- 8 ordenagailu gela ditugu (120 ordenagailu)
- Internet, Euskalnet, Infovia...
- Goi mailako gela teknikoak (CNC, Automatak, CAD...)

MATRIKULA

NON?: L.H. INSTITUTOAN
SANTA LUZIA HAUZOAN, 17 TOLOSA

NOIZ? UZTAILAREN 1 ETIK 8 RA.
IEE- LOGSEKO BATXILLERGOA
ERDI MAILAKO ZIKLOAK

UZTAILAREN 1 ETIK 4 RA
GOI MAILAKO ZIKLOAK (AURREMATRIKULA)

INFORMAZIO GEHIAGO:

☎ 65 11 47
65 06 64

➔ JADANIK INSTITUTO HONEK «LOGSE» SISTEMA EZARRIA DU

- Tolosaldean, «LOGSE» Batxillergotan esperientzia duen Ikastetxe bakarra
- Aurten bost ziklo formatibo (L.H. berria) martxan ipiniko dira

ESKEINTZA AKADEMIKOA

- LOGSE BATXILLERGOAK: TEKNOLOGIKOA ETA 2. GIZA ZIENTZIAK.
- ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK: MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE ARLOAK.
- GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK: MEKANIKA, MANTENUA ETA INFORMATIKA ARLOAK
- MODULU III (ENPRESEN ADMINISTRAZIOA)